

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5736

1009/2024 EBAZPENA, abenduaren 2koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, urriaren 30eko 800/2024 Ebazpena zuzentzekoa, Teresa Begoña Ibisate Beneitez andrea Administrazio Taldeburu izendatzen zuena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzan, Transplanteen Koordinazio Orokorreko Zerbitzuan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren irailaren 16ko 637/2024 Ebazpenaren bidez (urriaren 3ko EHAA, 193. zk.) eskaini zen Administrazio Taldeburu lanpostua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzan, Transplanteen Koordinazio Orokorreko Zerbitzuan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendarinagusiaren urriaren 30eko 800/2024 Ebazpenaren bidez (azaroaren 28ko EHAA, 232. zk.), Teresa Begoña Ibisate Beneitez andrea Administrazio Taldeburu izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzan, Transplanteen Koordinazio Orokorreko Zerbitzuan.

Argitaratu ondoren, akats material bat antzeman da urriaren 30eko 800/2024 Ebazpenean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua haxe dio: «Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren urriaren 30eko 800/2024 Ebazpena zuzentzea, honela:

Ebazpen-zatiaren Lehenengo puntuan, honako hau dioenean: «Teresa Begoña Ibisate Beneitez andrea izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren Ospitaleko Koordinaziorako Zuzendariordetzako Administrazio Taldeko Buruaren lanpostua betetzeko».

Honakoa esan behar du: «Teresa Begoña Ibisate Beneitez andrea izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzako Transplanteen Koordinazio Orokorreko Zerbitzuko Administrazio Taldeburuaren lanpostua betetzeko».

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAA n argitaratzeko agintzea eta interesdunari horren berri ematea.

2024ko abenduaren 16a, astelehena

Hirugarrena.– Beste ekintzetan Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren urriaren 30eko 800/2024 Ebazpenean ezarritakoa mantentzen da.

Laugarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 2a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL.